

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Iruñeko liburutegiez arduratzen diren pertsonak hiriburuko beste liburutegi batzuetara alda daitezke

Gobernuak Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuen hornidurari buruzko Arautegia aldatzen duen foru dekretua onartu du

Asteazkena, 2019.eko martxoak 6

Iruñeko liburutegiez arduratzen diren pertsonak hiriburuko beste liburutegi batzuetara alda daitezke, Gobernuak gaurko bilkuran eta Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilari María José Beaumonten proposamenez, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuen hornidurari buruzko Arautegia onartu zuen 215/1985 Foru Dekretua aldatzeko onetsi duen Foru Dekretuaren ondorioz.

Aurreko arautegiaren arabera, toki jakin bateko liburutegiaz arduratzen ziren pertsonak Nafarroako beste herri batzuetako zentroetara baizik ezin zitezkeen joan. Oraingo aldaketari esker, liburutako langileak Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako asistentzia-zentroetako, Hizkuntza Departamentuko ikastetxeetako, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu-agentzietako eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zentroetako pertsonalarekin parekatu dira, eta hauetan bezalaxe, langileen lekualdatzeak baimenduko dira, eremu organiko bereko nahiz herri bereko beste zentroren batera aldatu arren.

Abenduaren 19an Gobernuak aintzat hartu zuen Foru Dekretu honen proiektuak Nafarroako Kontseiluak aurretiaz eman beharreko aldeko txostena jaso du.